

"Komunistak" eta komunistak

Deia, 1977-08-28.

Nik, bokazioz, formazioz eta lanbidez, kliseari beldurra diot.

Gizon bat, gertaera bat, ideoloji bat, ezin dira klise batean hatzeman. Mundua, mundukoak, gauzak berak, konplejoak dira, eta egin diteken sinplifikazioa beti izaten da alferra eta gezurra. Egiaren karikatura bat izan diteke, baina, egia, ez.

Gehienetan kliseak arrazoiaren tokia hartzen du.

Zerbait adieraztea zail denean, edo adierazbideak errazak gertatzen ez zaizkigunean, klise honetara jotzen dugu: hau "gorria" da, edo "paltsoa" da, edo "faszista" da.

Klise mota hau da beldurgarri dena.

Zenbat eta gazteago, gauzak erabakitzeke epaileago, tajanteago; adinez aberasten goazen bezala (aberastu ere egiten baitute urteak) joaten gara gure juizioak matizatzen.

Gaztearen radikalizazioa batez ere honela adierazten da.

Maizegi gaur, zoritxarrez. Klise jokabide hontaz ba dugu guk, euskaldunok, exenplu mila. Batzu, gure giro politizatu hontan sortuak, eta beste asko-batzu Franco-pean jasan izan behar izan ditugun esperientzietan.

Orain dela gutxi gogorazi digu hau Aita Onaindiak.

Don Alberto-ri elkar-hizketa bizi eta aberats bat egin berria diote DEIA-n. Hor esaten digu apaiza, eta apaiz zintzoa, izan arren, "komunista"-tzat salatua nola izan zen; Lehendakari Agirre bezala, euskaldun asko eta asko bezala.

Hau halaxe da; asko, gehitxo, izan gara gure herrian honen biktima.

Askotan ondorio gogorrarekin.

Batzu honetxegatik bakarrik izan ziren fusilatuak.

Baina don Alberto Onaindia berak ere erabili du elkar-hizketa hontan kaltegarri izan diteken klise antzeko zerbait. Eta kaltetunak, euskaldunon seme-alabak izan dira.

Eta bi aldiz.

Kliseak egiten duten kaltea bi eratakoa izan diteke gutxienez: bat, zuzenki ikutzen diona, eta, bestea, loturaz deduzitzen dena.

Eta bide hontaz, loturakoaren bidez, egin da oraingoa.

Eurokomunismoaz galdetzen dio kazetariak, edo don Albertok erantzuten du: "Está en la esencia del Partido Comunista (engainatzeko duen joera, alegia) el dividir. Es la táctica de ETA. ETA inventa la Quinta, la Sexta... eso es una sola ETA...". Eta elkar-hizketako beste leku batean dio don Albertok: "¿Soy un cristiano perfecto? ¡Qué voy a ser! Soy un cristiano con mi temperamento, con mi manera de ser. Pues lo mismo pasa con los comunistas, con los de ETA, con todos".

Elkar-hizketa guzian bi aldiz aitatzen da ETA, eta bietan komunistekin lotuta.

Ba dakit don Albertok ez duela hau apropos egin. Ezagutzen dut ongi, ba dakit beti zuzenbidearen bila dabilela, eta maite dut.

Baina oraingo hontan klise-ak menderatu du.

Behar genuke kontuan hau eduki, guk geok, hontatik hainbeste sufritu dugunok; oraindik gaitz honetatik asko eta asko ari baigara gure artean, sinplifikazioaren gaitz hau dela-ta, gure arteko giroa gaiztotzen.

Gazteak hau egitea, eta gehiegi egiten dute, ez da barkagarri, baina ulergarriago da.

Batez ere gazte ez garenok behar genuke hontaz arreta handia eduki.

Kliseak uzten duen susmoa gaitz-egile da.

Eta gure herrian, gure osasunerako, susmoa gehitxo ari gara zabaltzen.